

Ikastolak, berrikuntzaren eredu 1960tik 2010era

Ikastolen Elkartea, ikastolen erakunde gorena, Euskaltzaindiarekin batera, honen *Jagon* bildumaren barruan, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredu (1960-2010)* izenburua duen liburua (*Jagon 10*) aurkeztuko du, gaur egun ezaguna zaigun ikastola mugimendua jaio zela 50 urte direla-eta. Herritar askori galdetuz gero, euskal lurraldeetan eskolak diren garaietatik ikastolak izan direla adieraziko dute, ikastolak “beti” izan direla uste baitute, ez dakitelako 50 urte besterik ez dituen ibilaldia burutu duela euskal hezkuntzaren lehen eskola ekintza antolatua diren ikastolek. Alegia, XX. mendearen lehen erdiko ahaleginen ostean, Azkuek, Muñoak, Euzko Ikastola Batzak, Elbira Zipitriak, Julita Berrojalbizek eta bestek eragindako saioen ondotik, gaur egun eta euskal lurralde guztietan ezagutzen den ikastola mugimendua abian jarri zen 1960an.

JAKIN kultur aldizkariak, 1972an, monografiko batean, bere 6. zenbakian, hasierako lehen ikastola haiei buruzko ezaugarri esanguratsuenak bildu zituenetik, euskal eskola-ekintzaren mugimendu honi buruzko ikerketa lanak ugaltu dira, zenbait doktoretza-tesia barne, baina ikastola mugimenduaz ikuspegi holistikoa eskainiko lukeen azter lanaren eza nabaria zen. Lan honek edonolako publiko interesatuari zuzenduta egon behar zuen, hartara, ikastolen historia sozialarekin zerikusia duten datuak, gertaerak, lekukotzak eta aburu kontrajarriak eskura jarri behar dizkio. Ikastolen Elkartea hutsune hori betetzeko asmoz etorri da plaza publikora. Bai ikastola oso azaletik ezagutzen duen irakurleak, baita adituak ere, ikastola mugimenduaren ikuspegi osoa aurkituko dute, orain arte jakinak ziren datu askorekin batera behin ere jaso gabe zeuden gertaera, adierazpen, lekukotza zuzen eta ikuspegi desberdinak begi aurrean izango ditu. Polemikarako aukera eman dezakeen aspekturik ere bada. Ikerketan sakontzeko ere bai. Ikastola mugimenduaren barruko eta kanpoko ibilbidearen berri ematen duen txosten zabala eta zehatza da, eta euskal herritarren ibilbidearekin batera egindako jarduna agertzen ahalegindu da. Horregatik, argitalpenaren izenburuaren zati bat, hots, “Ikastola mugimendua. Dabilen herria”, bat dator liburuaren mamiarekin.

Baina bada besterik ere. Oso ekarpen garaikidea bada tartean. Saioaren 8. kapituluaren, “Ikastola eredu, 50 urteko gizarte-berrikuntzaren adibide” izenburukoa, mamia oso lotuta dago izenburuarekiko, eta bertan Ikastolen Elkarateak azken hamarkada honetan bere idazkietan argudiatu duen tesia jasotzen du, hots, ikastolak eredu direla dioen tesia, euskal hezkuntzaren

eskola-ekintza eta gizarte-ekintza garatzen dituen eredu propioa eraiki dutela, hain zuzen ere., estatuaren jabetzako ikastetxe publiko eta titularitate erlijiosoko ikastetxe pribatuaren betiko eskola-ereduetatik bereizia, hau da, Espainiako eta Frantziako hezkuntza-sistemen osagai nagusiak izan diren ereduak, alegia. Ildo beretik, planteatzen da ikastola bakoitzak eta ikastolek, hots, ikastola mugimenduak, hezkuntzaren eta hizkuntzaren muga soilak gainditzen dituzte eta gertaera sozial osoa bihurtzen dira. Orain arte pedagogia arloko adituen lanetan argudiatu den tesia izan bada ere, hau osatu eta sakondu izan da azken boladan EHUko soziologia eremuko ikertzaileen aldetik, eta horren ondorioz ikastola ereduaren marko kontzeptuala aberasten ari da. Honen lekuko M. Masa ikertzaileak ikastolei buruz egin duen kasu-azterketa da, eta Ikastolen Elkartearen liburu argitaratu berriak dakar haren konklusio nagusien laburpena.

Zehatz-mehatz adierazita, ikastola mugimendua adibide dira gizarte-berrikuntzan, adibide paradigmaticoa, honako bost arrazoi hauengatik: 1) Gizartean eta herritar jendearen artean sortu direlako, 2) Hezkuntzan, eskola-bizitzan eta gizartean ordura arte ez zegoen esanahi berri asmatua erantsen diotelako euskarari, 3) Egitura politikoak eta sozialak betetzen ez zituen gizarte-eskaera baten erantzun herritarra direlako, 4) Hezkuntza-jardueran, gizarte-ekintzaren zioak, egitasmoak eta balioak planteatzen eta gauzatzen dituztelako, eta 5) bereziki, guztiz berritzailea den heinean, publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren aurrean hirugarren formula osatzen dutelako, publikoa, pribatua eta gizarte/herritarra den hirutasun batean oinarritzen den eredu, horrenbestez. Finean, hirugarren espazio bat hezkuntzaren eskola-ekintza egiteko, ulertzeko eta praktikatzeko eredu berri bat.

J. I. Etxezarreta Alberdi
Ikastolen Elkarteko aholkularia